

ERA- BILERA GIDA

01



02



03



EKONOMIA ARDURATSU, ZUZEN ETA SOLIDARIO BATERANZKO URRATSAK

Koordinazioa eta edukiak _ **Euskadiko Mugarik gabeko Ekonomilariak**

Proposamen metodologikoa _

Sareak Ehuntzen Prestakuntza eta Ikerketa Sozialerako Taldea

Juan Rodríguez Medela,

Nayra García-González

María del Pilar Tudela Vázquez

Itzulpena: **Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l.**

Diseinu eta maketazioa _ www.dosmasdos.info

Azalako argazkiak _ **Slava Bowman / Orhan Kaya / Jake Hills**

Barrualdeko ikonoak _ **freepik**

Honakoak egin ditzakezu _



• **Partekatu** – partekatu, kopiatu eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan

• **Moldatu** – nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu

Honako baldintzen arabera _



Aitortu – Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.



EzKomertziala – Materiala ezin duzu erabili merkataritza-xedeetarako



PartekatuBerdin – Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorri-zkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.

Lizentzia _

Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0 Espainia (CC BY-NC-SA 3.0 ES)

* Material hau 2018ko uztailean idazten bukatu zen

AURKIBIDEA

0 ■ ERABILERA GIDA

- Gida testuinguruan jartzea
- Helburuak
- Edukien egitura
- Metodologia
- Ebaluazio-mekanismoak

1 ■ 01 GIDA DIDAKTIKOA ENPRESA ETA GIZA ESKUBIDEAK

- Unitatearen helburuak
- Kontzeptuzko edukiak
- Unitatearen garapena:
 - 1 saioa
 - 2 saioa
 - 3 saioa
- Bibliografia

2 ■ 02 GIDA DIDAKTIKOA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN IKUSPEGIAN ERROTURIKO EKINTZAILTZA

- Unitatearen helburuak
- Kontzeptuzko edukiak
- Unitatearen garapena:
 - 1 saioa
 - 2 saioa
 - 3 saioa
- Bibliografia

3 ■ 03 GIDA DIDAKTIKOA KOMUNIKAZIOA GENEROAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK

- Unitatearen helburuak
- Kontzeptuzko edukiak
- Unitatearen garapena:
 - 1 saioa
 - 2 saioa
 - 3 saioa
- Bibliografia

4 ■ ERANSKINAK

5 ■ MATERIAL OSAGARRIAK

Sar zaitetz edukietara
interesa zaizun atalean
klik eginez



GIDA TESTUINGURUAN JARTZEA

Ekonomia pertsonen zerbitzura jartzearen alde egiten dugu lan Mugarik gabeko Ekonomilariak osatzen dugun kideok; eta, alde horretatik, gure xede nagusia ekonomia espekulaziotik aldentzea da, merkataritza-arauak bidezkoak izatea, osasuna eta hezkuntza, salgaiak ez, baizik eta eskubideak izatea... Ekonomia lankidetzan ardaztuta egotea nahi dugu, eta ez lehiakortasunean; ekonomiak, natura suntsitu ez, baizik eta natura zaintzea. Labur esanda, **ekonomia eraldaketa sozialaren tresna izatea** hartzen dugu helburu.

Egiten dugunak garrantzia duelako, ondorioak dituelako, denok dugulako zer esana eta zer ekarria eraldaketa eta justizia sozialerako bidean aurrera egiteko, Mugarik gabeko Ekonomilariok buru-belarri dihardugu lanean Garapenerako Hezkuntzaren alorrean, herritar informatu, kritiko, aktibo eta solidarioak hezteko, gaur egun hain nagusi diren bidegabekeria sozialei aurre egin diezaieten.

Gida hau Lanbide Heziketako irakasleentzat egina dago, ekonomiarekin lotutako gaiak lantzen dituztenean laguntza modura erabil dezaten, eta ikasgai askotan erabiltzekoa da: "Erantzukizun sozial korporatiboa eta giza baliabideak", "Enpresa eta ekimen sortzailea", "Komunikazioa eta bezeroaren arreta", "Enpresa ikasgelan", "Enpresa-simulazioa", "Lanerako orientazioa eta prestakuntza" izenekoetan, besteak beste.

Gidan, modu sintetiko eta egituratuan jasotzen dira gaur egungo errealitate ekonomikoaren ondorio eta alternatibei buruzko gure ikuskerak eta ezaguerak, horrek pertsona guztientzako gizarte-eredu justuago eta solidarioago bat sortzeko balioko duen ustean.

Sareak Ehuntzen Prestakuntza eta Ikerketa Sozialerako Taldearekin batera egina dago gida hau, eta haiek diseinatu dute bai egitura eta bai metodologia.

HELBURUAK

Ekonomia arduratsu, zuzen eta solidario bateranzko urratsak gida didaktiko honek bi proiektu ditu oinarri: batetik, *Giza Garapen Jasangarrirako Lanbide Heziketa*, eta bestetik, *Interdependentzia Globalak: Lanbide Heziketaren eta Ekonomia Zuzen eta Solidarioaren alorreko ekintzailetzaren arteko zubiak eraikitzen, Gizarte Eraldaketa helburu*. Bi proiektu horiek hiru xede dituzte:

- Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleek gaur egungo eredu ekonomikoaren ondorio eta inpaktuen gaineko kontzientzia kritikoa hartzea.
- Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleei Giza Garapen Jasangarrira iristeko beharrezkoak izan litezkeen gaitasun eta baliabideak eskaintzea, eta eraldaketa sozialerako ekinguneak sortzea.
- Modu sinergikoan sustatzea Ekonomia Zuzen eta Solidarioaren aldeko teoria eta praxia.

Gida honetako eduki guztiak **giza eskubideetan oinarrituriko ikuspegi batean** ardaztuta daude, esparru kontzeptual horrek giza garapenaren prozesuari laguntzen diolakoan: batetik, ikuspuntu normatibotik begiratuta, gida honetan irakasten direnak bat datoz giza eskubideen alorreko nazioarteko arauekin; eta, bestetik, ikuspuntu operazionaletik begiratuta, printzipio eta arau unibertsalak sustatzen dituzte, giza pertsonari berez dagokion duintasuna aintzat hartuta, eta alde horretatik, pertsonaren garapen integralarekin loturiko alderdiak lantzen dituzte, hala nola bizitza, askatasuna, berdintasuna, segurtasuna, partaidetza politikoa, gizarte-ongizatea...

Garapenaren gaineko problemen muintzat har daitekeen desparekotasuna al bait sakonen aztertzea da gure ikuspegiaren asmo nagusia, eta bazterkeriazko ohiturak eta boterearen banaketa bidegabea zuzentzea ere bai, horrek guztiak giza garapen jasangarria erdiestea galarazten duen aldetik.

PROZEDURAZKO ETA JARRERAZKO HELBURUAK

Unitate bakoitzeko helburu espezifikoek gain, badira beste zenbait helburu ere, hala jarrerazkoak nola prozedurazkoak, hiru unitateetan batera lantzen direnak:

Prozedurazko helburuak

- Informazioa aztertzeke gaitasunak lantzea, eta hura testuinguru zabalago baten baitan ulertzen ahalegintzea, giza eskubideak aintzat harturik eta tokian tokiko arazoak mundu-mailakoekin loturik daudela oharturik.
- Kontzientzia kritikoa sustatzea guar egungo eredu ekonomikoaren ondorioei buruz eta horrek giza eskubideetan duen inpaktuari buruz.
- Modu indibidual nahiz kolektiboan jarduteko gaitasuna sustatzea eta mobilizaziorako estrategiak lantzea.
- Mobilizaziorako eta eraldaketarako alternatibak eskaintzea, gizarte-eredu zuzenago, inklusiboago eta solidarioago bat lortzeko.

Jarrerazko helburuak

- Ikaskuntza kolektiboa eta jakintzen eraikuntza kolektiboa balioestea, ezagutza-iturri den aldetik eta nork bere burua eta proiektuak aberasteko balio duen aldetik.
- Norberak prozesu kolektiboetan zer egin dezakeen eta zer-nolako garrantzia duen identifikatzea.
- Aniztasunaz jabetzeko eta balioesteko baliabideak aintzat hartzea, hasi ikasgelatik eta gizarte osoa barnean hartzeraino.
- Taldean lan egiteko gaitasunak lantzea: entzuten jakitea, hitz egiteko txandak errespetatzea, eztabaidatzea eta akordioak egitea...
- Jendaurrean hitz egiteko abileziak lantzea: ideiak laburbiltzea, hitz egiteko beldurrari aurre egiteko estrategiak, ahalduntzea eta jakintza partikularren balioa azpimarratzea.
- Autonomia sustatzea lan indibidual nahiz kolektiboetan: zereginak antolatzea eta banatzea, nork bere erantzukizunak onartzea.
- Ekimena eta proiektu eta talde-estrategiak martxan jartzeko ekintzaile-gaitasunak sustatzea.
- Harreman zintzo eta bidezkoak bultzatzea, elkarren zaintzan eta konfiantza-giroan oinarrituak (elkarrenganako arretan, errespetuan, elkarriketan, integrazioan...).
- Hizkuntza balioak transmititzeko baliabide den aldetik balioestea.

EDUKIEN EGITURA

Enpresa eta giza eskubideak da lehenengo unitate didaktikoa, eta sistema kapitalistaren balioak ez ezik, hura jasagarria izan daitekeen ere auzitan jartzea da haren helburua, batetik, eta enpresek, giza eskubideen ikuspuntutik begiratuta betiere, gizartean eta ingurumenean zer-nolako eragina duten ikertzea, bestetik. Halaber, herritarren kontsumo-ohiturak ere lantzen dira, eta bezero gisa nola jokatzen dugun ere bai, gure esku baitago gure diruarekin zer erosi (edo non inbertitu, edo gure aurrezkiak non sartu) erabakitzea; hots: produkzio-ziklo osoan Giza Eskubideak eta ingurumena aintzat hartzen duten enpresetara jo ala ez, hori geure baitan dago.

Bigarren unitate didaktikoan, *Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegian erroteriko ekintzaitetza* izenekoan, pertsonen ongizatea eta ingurumena babestea oinarri duten jarduera ekonomikoen alde zer egin erakusten duten proposamenetan sakontzen da, eta gaur egun hegemonikoa den enpresa-eredua alda ote daitekeen aztertzen. Horretarako, bi kontzeptu aletzen dira, Ekonomia Sozial eta Solidarioa eta Zaintzen Ekonomia, biak ere giltzarriak direlakoan, eta, aldi berean, ekimen ekonomiko errealak aurkezten dira, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren alorreko ekimenen diseinuan trebatzeaz batera. Horrez gain, finantzaketa alternatiboekin loturiko zenbait proposamen ere esplikatzeko dira.

Azkeneko unitate didaktikoak, *Komunikazioa generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik* izenekoak, modu kritikoan aztertzen du enpresaren alorreko komunikazioa, eta generoa eta giza eskubideak aintzat hartu behar diren garrantzian jartzen du azpimarra. Horretarako, komunikazioak zer paper jokatzen duen, nolako eragina duen eta, balio eta sinesmen sozialen transmisioan, zer-nolako potentziala duen aztertzen dugu. Genero-ikuspegia da unitate honen muina: hortik abiatuz, hainbat baliabide ematen dizkiegu ikasleei, beren ikus-eremua albat gehien zabaldu, eta enpresa-komunikazioaren alorrean gaur egun nabarmen-nabarmenak diren denetarikoa desparekotasunei aurre nola egin (hots: zer egin) identifikatzeko eta jakiteko gauza izan daitezen.

Labur esanda, gida honen hari nagusia kritikoa da, argi eta garbi: ekonomiari giza eskubideen ikuspegitik heltzen zaio, eta horretan, lehenik eta behin, enpresa konbentzionalek mundu globalizatuan zer-nolako inpaktua duten aztertzen da, eta gero, pertsona kontsumitzaileak eragile aktibo bihurtzeko formulak eman ondoren, eraldaketa sozialerako bidea seinatzen da. Horren ondoren, Ekonomia Sozial eta Solidarioa batera iristeko zer egin eta zer baliabide erabili aztertzen da, eta garbi bereizten dira ekonomia-eredu hori eta ekonomia kapitalista: Ekonomia Sozial eta Solidarioa bizitzaren erreprodukzioan ardatzen da, eta ez irabazien metaketan. Amaitzeko, zenbait elementu transbertsaletan jartzen dugu arreta (komunikazioan,

generoan eta giza eskubideetan, zehatz esateko), horrek enpresetan bereizkeria betikotzen duten komunikazio-praktikekin hausteko balio dezakeelakoan.

Unitate didaktiko guztiak elkarrekin estu-estu lotuta daude, eta hori dela eta, gida bi eratara erabil daiteke: edo unitate bakoitza modu independentean landuz, edo batetik bestera jauzi eginez.

UNITATEEN EGITURA

Unitate didaktiko bakoitzak ordu banatako 3 saio ditu, ikasgelan bertan lantzekoak (eskolatik kanpora egin beharrekoak gorabehera). Saio bakoitza hiru zatitan banatzen da: ongietorria, garapena eta amaiera.

» ONGIETORRIA

Saio bakoitzaren hasierako tarte da, 5-10 minutukoa. Atariko fase honetan, saioa dagokion unitate didaktikoaren barruan kokatze aldera, unitatearen helburu orokorrak esplikatu dira, saioa estreinakoa baldin bada, edota, besterik gabe, helburuak gogora ekarri, eta aurreko saioetan landutako ideia nagusiak azalduko dira labur-labur.

» GARAPENA

Saioaren garapenean, kontzeptu eta edukiak hainbat dinamika eta baliabideren bitartez lantzen dira. Fase honek 45-50 minutuko iraupena du, eta gero ere, dinamika bakoitza landu aurretik, egin beharrekoak egiteko zenbat denbora behar den zehazten da, horretan jarduteko jarraibideak emateaz batera.

» AMAIERA

Bukaerako saioan, irakasle-ikasleek 5-10 minutu emango dituzte egindakoa berrikusten (saioan landu, ikasi eta eztabaidatutako ideiak, besteak beste). Horretarako, ekarpen guztiak laburbilduko ditugu aurrena, eta ahal eta behar den neurrian, egindakoa osatuko dugu. Amaitzeko, hurrengo saioan zer landuko den azalduko da.

Unitate bakoitzaren amaierako saioan, ikasleei galdetegi bat emango zaie, unitatean ikasitakoak ebalua ditzaten (ebaluzioari buruzko eranskina).

Mugarik gabeko Ekonomilariok garrantzi berezia ematen diogu ikasle eta irakasleen balorazioari, gure proposameneko eduki eta metodologiaz zer pentsatzen duten jakiteari. Horregatik, gure egitasmoa baloratu eta ebaluatu nahi izanez gero, helbide honetara bidal dezakezue zuen e-maila: ecosfron.euskadi@ecosfron.org

METODOLOGÍA

Gida honen ikuspegi metodologikoak bi zutabe ditu, partaidetza eta bizipenezko ikaskuntza, eta helburuak ere bi dira: ikaskuntza eraginkorra dela bermatzea eta ikasleek beren gaitasunak gara ditzaten lortzea. Edukiei dagokienez, gidak, alde batetik, gogoeta egitean oinarrituriko zati bat du, eta hartan, ikasleek zenbait ideia eztabaidatu eta adostu beharko dituzte banakako nahiz taldekako dinamiken bidez, eta besteei haien berri eman, era askotako formatuak erabiliz (marrazki, adierazpen grafiko, gako-hitzen eskema, albistegi, irrati-telebistetakoak bezalako eztabaidamahi...).

Bestalde, bizipenezko ikaskuntza hori hezurramitzeko, **Problemetan eta Proiektuetan oinarritutako Ikaskuntza** (PBL, ingelesez) eta Lankidetza Ikaskuntza (edo helburuetan oinarritutakoa) hartzen dira oinarri, proiektu jakinak taldean lantzean garatzen diren abilezietan ardaztuak biak ere, ikasleek barneraturiko edukietan ez ezik.

Ikaskuntza-mota horren abiapuntua deskubrimendu-fase bat da: ikasleari informazio jakin bat ematen zaio, eta hortik abiatuta, gai jakin bati buruz ikertu behar du, eta gero, beren proiektua ondua dutenean, besteei egindakoaren berri eman. Talde bakoitzak kontzeptu jakin bat ikertu beharko duenez, saioa bideratzen duen pertsonak informazioa osatzeko aukera izango du aurkezpen bakoitzaren ostean, norberak landu gabeko gai eta kontzeptuak ere argi gera dakizkien ikasle guzti-guztiei.

Helburua, beraz, ikasle bakoitza ikasten ari den horren erantzule bihurtzea da, ikaslea izatea ikaskuntza-prozesuaren protagonista. Alde horretatik, irakasle-taldearen eginkizuna topaguneak erraztea da, ikasleek elkarrekin lan egiteko guneak izan ditzaten ahalegintzea, eztabaidak dinamizatzea eta ikasleen ekarpenak osatzea aipatu gabe geratu diren baina kontzeptu bakoitza ongi ulertzeko ezinbestekotzat jotzen diren ideia giltzarriekin.

Hemen proposatzen den metodologiak garrantzi handia ematen die banaka lan egiteko tarteei, eta ikasleek denbora dezente emango dute horretan, ezagutzak eta gaitasunak barneratu eta, gero, beren proiektua jendaurrean aurkeztean, ikasitakoaren berri ganoraz emateko gai izan daitezten. Gainera, taldean lan egiteari esker, ikasleek beren gaitasun erlazionalak landuko dituzte, eta horrek aukera ezin hobea emango die taldeek, beren hartan lanerako baliabide diren aldetik, nola funtzionatzen duten ongi ikasteko, eta taldean lan egiteak dakarrenaz jabetzeko ere bai: taldea antolatu eta rol nahiz zereginak banatu beharra, taldekideekin komunikatu beharra, gatazkak konpondu beharra...

Beren proiektuen aurkezpena prestatzeko eta lantzeko, teknologia berriak erabili ditzatela proposatuko zaie ikasleei: aurkezpenetarako aplikazio informatikoak (Power Point, Prezi...) eta komunikazioarekin loturiko web orriak (albistegiak prestatzekoak, eztabaida-mahaiak antolatzeakoak...), besteak beste. Proiektagailuak eta ordenagailuak erabiltzeko aukera ere izango dute, eta halaxe ohituko dira gero ere, lanean hasten direnean, egunero-egunero erabili beharko dituzten baliabideak erabiltzen.

Azkenik, proiektuen aurkezpenak grabatu edo nolabait muntatu eta, gerora egiten dituzuen jardueretan, material pedagogiko modura erabiltzea ere aukeran duzue.

NOLA ERABILI BEHAR DA GIDA HAU?

Gida hau irakasleek erabiltzekoa den arren, ikasleek lantzeko propio sortuak dauden eranskinak ere badakartza, hainbat dinamika-mota egiteko proposamen eta guzti, denak ere goraxeago esplikatu dugun ikuspegi metodologikoan oinarrituriko eduki eta abileziak barneratzeko pentsatuak. Dinamiken garapenean, esplizituki azaltzen da eranskin horiek noiz eta nola erabili.

Dinamika bakoitzak laburpen-taula bat du hasieran, eta gero, horren ondoren, dinamika egiteko zer pauso eman behar diren ematen dira, urratsez urrats:



■ **EDUKIA:** Landuko diren eduki orokorrak.

■ **MATERIALAK:** Dinamika lantzeko beharrezko materialak

■ **INPLEMENTAZIO-DENBORA:** Dinamika egiteko beharrezkoa dela kalkulatzeko denbora

Horrez gain, informazio osagarrien zenbait taula ere tartekatzen dira, bi eratakoak:



■ **EKARRI GOGORA**

Taula hauetan iradokizun ugari aurkituko dituzue, dinamizazioa nola antolatu edo dinamika modu alternatiboan nola landu jakiteko.



■ **PARTEKATZEKO IDEIAK**

Fase bakoitzean lantzen diren edukiei buruzko informazioa jasotzen da taula hauetan, irakasleek jarduera bakoitzarekin lotuta eman behar izaten dituzten ahozko azalpenak osatzeko.



■ **TALDE LANA**

Atal honetan argibideak emango ditugu taldeek proposatutako dinamikak lan egiteko.

DINAMIZAZIORAKO ARRASTOAK

Unitate bakoitzak dituen informazio osagarrien taulez eta iradokizun espezifikoez gain, prozesua al bait malguen dinamizatzeko zenbait aholku ere emango dizkizuegu ondoren.

Ikasleek **foro-gisako dinamiketan** (taldean egin beharrekoetan, alegia) parte har dezaten sustatzeko asmoz, binaka jarrita bizpahiru minutuz elkarrekin hitz egitea proposa diezaiekezue, besteei egindakoaren berri ematen hasi aurretik. Horren ondoren, azaldu auzia atzera ere, baina ikastalde osoari oraingoa.

Taldeak osatzeko irizpideak asko izan daitezke: ikasleak kidetasunagatik elkartu daitezke, nork norekin lan egin nahi duen aukeratuz; edo gai zein ekimen jakin baten gaineko interesak hartaratuta; edo modu aleatorioan, elkarrekin lan egiteko irizpide jakinik gabe. Azken hori gertatzen baldin bada, hauxe duzue ikasleak antolatzeko mekanismorik aproposena: bakoitzak aukeratu dezala 1etik osatu nahi dituzuen taldeak adinako kopurura bitarteko zenbaki bat eta, gero, elkartu daitezela zenbaki bera duten ikasleak talde berean.

Saioen iraupena ordubetekoa denez, oso garrantzitsua da, **taldeak egiten** hasi baino lehen, zenbat talde osatuko dituzuen eta talde bakoitzak zenbat kide izango dituen ongi pentsatzea. Ikasle guztiek paretsuko parte-hartzea dutela bermatzeko, talde bakoitzak **6-7 kide baino gehiago ez izatea** komeni da.

Taldean lan egiteko orduan, ikasleek eskura izan behar lituzkete dinamika bakoitza egiteko jarraibideak, dela paperean, dela ordenagailuaren pantailan.

Dinamika bakoitzari buruzko atariko azalpena emateaz gain, irakasleak talde bakoitzaren zalantzak argitzea eta egin beharrekoari buruzko orientabideak ematea ere garrantzi handikoa da. Halakoak, ordea, puntualki egin behar dira, eta ez da behar baino denbora gehiago eman behar horretan, irakaslea tartean egoteak ikasleen parte-hartzea mugatzea ere posible baita.

Aurrez taldean landua ikaskideekin partekatu behar izaten da gero, eta gauzak errazte aldera, ikasleek hobe lukete denen artean adostua idatziz jaso eta pertsona bat edo bi aukeratzea bozeramaile-lanak egiteko, taldean ondutako ideien berri eman diezaieten besteei. Alde horretatik ere, garrantzi handikoa da **ikasle guzti-guztiek parte hartzen dutela bermatzea**.

Bateratze-lanean, funts-funtsezkoa da **ikasleek egindako ekarpenak ikusgai egotea**, dela pantaila batean proiektaturik, dela paperografoan, paper jarraituan edota elkarri egindakoaren berri emateko prozesuan erabilitako beste edozein materialetan zintzilik. Garrantzi handikoa da, halaber, ikasleek egiten dituzten ekarpen guztiak arbelean txukun-txukun idaztea, haietako bakoitzaren garrantzia nabarmenduz eta gai bakoitzarekin loturiko informazioa osatzeko balio dutela azpimarratuz.

Aurkezpenetan **hizkuntza zaintzearen garrantzia** ere ez da nolana hikoia, eta hori dela eta, hona hemen zenbait irizpide, irakasleek gogoan izateko modukoak:

- Generiko unibertsalak erabiliko dira (*haur edo ume, gizaki, pertsona...*)
- Gizonei eta emakumei tratu simetrikoa emateko, femeninoa eta maskulinoa aipatuko dira elkarketetan (*gizon-emakumeak, maisu-maistrak, seme-alabak...*)
- Kolektibo inbisibilizatuak beren izenez aipatuko dira: dibertsitate funtzionala duten pertsonak, genero-dibertsitatea dutenak...
- Bizi garen gizarteko aniztasuna aintzat hartzen dituzten irudiak erabiliko dira

Egindakoaren jarraipena egitea ere oso garrantzitsua denez, idatzi paperografoan, paper jarraituan edo arbelean ikasleek, bai talde-lanean eta bai bateratze-lanean, proposaturiko galdera guztiak, oso litekeena baita hurrengo saioetan atzera ere haiei heldu behar izatea. Ikasleek berek ere idatz ditzakete beren galderak, txandaka, talde bakoitzeko kide guztiek parte har dezaten lan horretan.

Talde guztiak gai bertsuak lantzen ari direnean, geroko bateratze-lana errepikakorregia ez izateko, aurkezpen bakoitzaren ostean solasaldi bati ekitea izan liteke egokiena, galde-erantzunak bat datozen ikusi eta, hala behar izatera, esandakoari zenbanahi ñabardura egiteko. Hala, talde bakoitzak bere aurkezpena egiten duenean, aipatu gabeko esperientziak eta ideiak bakarrik azalduko ditu.

Proiektuen aurkezpenak grabatzeko baimena ere eska dakieke ikasleei, gero grabazioak editatu eta material modura erabiltzeko edo sarean barrena hedatzeko.

Dinamika guztiak aulki mugikorrek dituzten **guneetan** egitekoak dira, halakoak apropos-aproposak baitira talde-lana antolatu eta bateratze-lana hemiziklo-formako biribil baten bueltan egiteko, hau da, ikaskide guztiak aurrez aurre jarririk. Zuen ikasgelako mahai eta aulkiak mugi ezin badaitezke, alternatiba bat da dinamika gelan aurkeztea eta, gero, talde-lanerako, beste ikasgela batera edo patiora joatea. Hori egitea erabakitzen baduzue, talde bakoitza zer gelatan dagoen jakin beharra dago une oro, eta ikasleei argi adierazi behar zaie dinamika egiteko zenbat denbora duten eta zer ordutan itzuli behar duten gelara.

Proposatzen diren **materialak** ez badituzue, alternatibak bila ditzakezue: adibidez, paperograforik ez baduzue, paper jarraitua edo horma-irudi zaharrak erabil ditzakezue, edo lau folio batu.

Eranskinetan zenbait dinamika lantzeko adibide modura ematen diren albiste, proiektu eta ekimenak horixe dira: adibideak. Egokiagoak diren beste batzuk erabili nahi badituzue (landu nahi dituzuen gaiak lantzeko aproposagoak direlako, esate baterako), zuen esku dago hori erabakitzea. Horretan, egoki askoa izan liteke ikasleei zuzenean galdetzea ea proposamenik baduten, zer interesatzen zaien edo zer jakin nahi luketen.

EBALUAZIO - MEKANISMOAK

Unitate didaktiko bakoitzaren ebaluazioa modu jarraituan egingo da, eta horretan, irizpide hauek erabiliko dira:

- ikasleak saioetan aktiboki eta ekimenez parte hartzen duen;
- taldean lan egiteko gai den, eta besteei modu enpatikoan entzuten dien;
- rolak txandakatzeko ohiturarik baduen (generoarekin loturikoak, batik bat);
- azaldu beharreko informazioa ongi antolatzen duen;
- komunikatzeko abileziarik baduen;
- programako edukiekin loturiko bere iritzia modu kritikoan emateko gai den;
- saioak osatzeko modukoak diren eduki eta materialik proposatzen duen;
- hizkuntza inklusiboa darabilen.

Modu jarraituan ebaluatzeakoak diren irizpide horiek ez ezik, ikasleek unitate bakoitzeko edukiak ongi barneratzen dituzten ikusteko, unitate didaktiko bakoitzarekin loturik egin beharreko proiektua ere ebaluatuko dugu.

Enpresa eta giza eskubideak unitate didaktikoan, talde bakoitzak, rol bat aukeratu (enpresa txiki edo ertain bat, kontsumitzaile-elkarte bat, finantza-erakunde bat...), eta ekintzaile, inbertsore eta/edo kontsumitzaile modura pertsona bakoitzak ekonomia zuzenago eta solidarioago bat lortzearren zer egin dezakeen, horixe irudikatu edo islatu beharko du. Ekarpen praktikoez gain, talde bakoitzak kontzeptu gakoetako bat ere landu beharko du (Erantzukizun Sozial Korporatiboa, Banku Etikoa eta Kontsumo Arduratsua).

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegiaren erroteriko ekintzaitza unitate didaktikoan, Ekonomia Sozial eta Solidarioa eta Zaintzen Ekonomia oinarri dituen enpresa bat sortu beharko du talde bakoitzak. Horretarako, zenbait printzipio eta proposamen feminista landuko dira aurrena, eta gero, Ekonomia Sozial eta Solidarioa inplementatu duten zenbait sektoretako zenbait erreferentzia emango dira, ekonomia-mota horren espektro zabala agerian jartzea helburu hartuta.

Komunikazioa generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik unitate didaktikoan, ikasleek ikerketa-lan bat egin beharko dute, eta galdera hauei erantzun: 1) Nola transmititzen dira, komunikazioaren alorrean, generoarekin loturiko eredu eta desparekotasunak?; 2) Nola identifika daitezke, komunikazioaren alorrean, gizartean hain sustraiturik dauden desparekotasunak?; 3) Zer baliabide ditugu gure komunikazio-ohiturak giza eskubideen errespetuan oinarritzeko? Horrez gain, bi jarduera ere proposatzen dira: iragarki batean mezua zein den identifikatu eta aldatzea bata, eta komunikazioaren alorreko praktika onak identifikatzea bestea.

Eranskinetan dituzue material guztiak, eta hara jo dezakezue.



<https://ecosfron.org/euskadi>



Economistas sin Fron-EsF Euskadi



@EconomiaJusta